




EAEko ekonomia %4,5 haziko da 2022an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2022ko BPGA GUZTIRA
%4,5




Errusiak Ukraina inbaditu izanak Covid-19aren pandemiaren ondoren hasitako susperraldia bertan behera uzteko mehatxua egin du. 2021ean hazkunde tasa handiak eskuratu ondoren eta 2022an joera hori jarraituko zuela ematen zuenean, gatazka belikoak erabat aldatu du panorama ekonomikoa. Ziurgabetasuna da nagusi munduko ekonomian, batez ere Europan; izan ere, hazkunde txikiko eta inflazio handiko aldia espero da, eta, horren ondorioz, erakunde nagusi guztiek beherantz berrikusi dituzte hazkunde aurreikuspenak.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurtengo aurreikuspenak eguneratu berri ditu, eta jakin badaki gaur egungo egoerak zailtasun berezia dakarrela epe ertainerako agertoki makroekonomiko bat osatzeko, zentzuzko aldi batean mantendu ahal izango dena. Oraingo agertokiak BPGaren hazkunde tasa erreala %4,5ean mantendu du 2022rako, eta hazkunde nominala %10,0ra igotzen da, inflazioaren igoera handiaren ondorioz.

AZKEN KONTSUMOKO GASTUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Etorkizunari buruzko ziurgabetasunak eta prezioen etengabeko gorakadak familien erosteko ahalmena murriztuko du, eta, beraz, kontsumo probatua %1,7 soilik handituko dela aurreikusuten da. Aitzitik, kanpoko eskari handiak eta mikrotxipen eta beste produktu batzuen etorrera gero eta erregularragoak pentsarazten dute kapital eraketa gordinak erritmoa bizkortuko duela datozen hiruhilekoetan, urteko batez besteko %7,1eko balioa erregistratu arte. Hala eta guztiz ere, barne eskariaren bultzada txikiagoa aurreikusten da, eta kanpo sektorearen ekarpen handiagoarekin konpentsatuko da. Eskaintzari dagokionez, adar guztiek aurreko taula makroan aurkeztutakoak baino erregistro dinamikoagoak jasotzen dituzte.

Lan merkatuan, azkenik, lanaldi osoko lanpostuak %3,2 haziko dira, eta langabezia tasa, berri, %8,8ra jaitsiko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.